

24.korrika *æk*  
**Euskara  
gara**  
Atharratzetik Bilbora  
2026ko martxoaren 19tik 29ra

# txintx rri



**Olatu moreak  
hartu du herria**

**Martxoaren 8aren bueltan  
ekimen ugari egiten ari dira / 6-7**

Herri erdigunea zeharkatu zuten ehunka herritarrek Emakumearen Nazioarteko Egunean, aSUnak talde feministako kideek antolatutako manifestazioan. Feminismitik, "beste mundu bat" aldarrikatu zuten. TXINTXARRI

## EUSKARA

**Hilaren 25ean iritsiko da herrira 24. Korrika; horren aurreko atal gehigarria landu eta argitaratu dugu / 2-5**



TXINTXARRI

## GIZARTEA

**Hilaren 17an greba egiteko arrazoiak zein helburuak aletu eta deialdi hori babestu dute / 10**

## KIROLA

**Gipuzkoa Sortzen proiektuko taldeek txanponaren bi aldeak bizi izan dituzte etxean eta Valentzian / 12**

## KIROLA

**Eguzki AFko jokalaria gazteak Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan izan dira lehian / 13**

 **Ges  
aseguruak**

**KORRIKA-rekin bat!  
Gu ere euskara gara!**



*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





# Jalgi

kafe  
antzokia

Geltoki kalea, 4 behea  
LASARTE-ORIA



KORRIKA-rekin bat!  
Gu ere euskara gara!



Zatoz korrika egiteko indarrak  
hartzera, eta ondoren,  
indarrak berreskuratzera!



## Korrika txikia

- 1.778 km: Xumela / Biyak Bat / Aterpea
- 1.779 km: Lasarte-Oriako Udala
- 1.780 km: Katxiporreta / Kukuka
- 1.781 km: Ttakun KE / Muntteri AEK
- 1.782 km: Hipodromoa / Enpresabidea
- 1.783 km: Zubietari lekukoa eman



TXINTXARRI

## Hilaren 25ean euskararen aldeko aldarriak beteko du Lasarte-Oria

### Txintxarri

24. Korrika hastear da. *Euskara gara* lelopean hilaren 19tik 29ra, Atharratzetik Bilbora Euskal Herriko milaka herri igaroko ditu eta horietako bat izango da Lasarte-Oria.

Hilaren 25an, euskararen aldeko aldarria goiz-goizetik entzungo da herriko kaleetan. Landaberri ikastolako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko haur eta gaztetxoek emango diote hasiera egunari Korrika Txikiarekin, 10:30ean.

Lasterketa 12:55ak aldera iritsiko da Errekaldetik eta lekukoa eragilez eragile joango da 15 kilometroko ibilbidea osatzeko. Hipo-

dromoko zubian Zubietako herri-tarrei emango diegu testigua.

24. Korrika igaro ostean ere izango da ekimenik Lasarte-Orian. 17:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen haurrentzako ikuski-zuna egingo dute Okendo plazan eta 18:30ean, erraldoi eta buruhandiak (LOZET) izango dira herriko kaleetan zehar Oaintxe in deul txarangarekin.

Bai Korrika txikiak baita Korrikak gure herrian egingo duen ibilbidea ikusgai duzue ondoko mapan.

Bien bitartean, motorrak berotzeko Korrika Kulturalako ekimenak egiten ari dira udalerrian.

## Bizitzatik, ikerketa antropolitikora



TXINTXARRI

*Jo!* antzezlan eskaini zuten Korrika Kulturala egitaraua dela-eta, hilaren 7an, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Sorkun (Anduriña Zurutuza) eta Grego (Bea Egizabal herritarra) lagun minak ditu protagonista obra honek. Aspaldian elkar egon gabe izan dira adiskideak, eta topo egiten dute bat-batean, gimnasioan. Kirola egiten ari direlarik, antropologia ikerketa burutzen dute, bizitza istorioak iturburu dituztela. Helburu dute galdera honi erantzutea: Zergatik ez dugu elkar ikusi hainbeste denboran? Feminismotik eta ohiko tonu ironikotik abiatuta, familia normatiboez aritu ziren.

## Muntteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea, 17, behea • 20160 Lasarte-Oria  
607 62 52 33 - lasarte@æk.eus  
www.muntteri.blogspot.com.es



Muntterin  
EUSKARA  
GARA!

æk  
euskara praktikoa



Orburutxo eta Zainzuriñe izango dira 24. KORRIKAKO protagonista nagusiak. ERRIGORA

## "Autoestimua dosi ederra izan da; hamahiru urteko auzolanari egindako aitortza"

ORBURUTXO ETA ZAINZURIÑE ERRIGORA, 24. KORRIKAKO OMENDUA

### Maddi Noriega Zaldua

24. KORRIKA-ko omendua da Errigora. Eragile horren auzolan ereduari gorazarre egin dio AEKk aurten, eta, bide batez, baita euskararen lurra lantzeko dozena pasa urteetako ekinaldiari ere. Hori horrela, euskararen aldeko lasterketa erraldoiko protagonista nagusia izango da Errigora; bi ordezkariak parte hartuko dute, lantzean behin, lekukoa daramaten eta horien atzetik lasterka joango direnen artean agertuko direnak. Ez dira edonor, ordea; Nafarroa erdi eta hegoaldeko lurretan maiz ekoizten diren bi

barazki izar: Orburutxo eta Zainzuriñe. Horiek elkarrizketatu ditu TXINTXARRI aldizkariak.

### Nola jaso du Errigorak aurtengo Korrika-ko omendua izatearena?

Ilusio ikaragarria eman digu Errigorako kideei Korrikak bere 24. edizioako eragile omendua izateko gure herri ekimen hau hautatu izanak. Azken finean, hamahiru urteko auzolanari egindako aitortza bat da, eta horrek proiektuaren parte garen guztiontzat autoestimua dosi eder bat izan da. Harrotasunez bete gaitu. Euskal Herrian Korrikaren tamainako ekimen eta erakusleho gutxi daude ziu-

rrenik. Horregatik, omenaldia Errigora ezagutzera emateko baliatu nahiko genuke. Oraindik ere herritarren gehiengoak ez gaituelako ezagutzen.

### Zer jartzen du balioan aitortza horrek?

Euskal Herriaren luze zabalean euskara eta elikadura burujabe-

**"Nafarroa erdi eta hegoaldea dugu ardatz; 'EHren baratza' deitu ohi zaion eremua"**

tzaren alde urtero-urtero loratzen den herriz herriko auzolan nekazina. Baita Nafarroa erdi eta hegoaldean euskara eta bertako ekoizpena sustatzeko lanetan ari diren lagun horiek guztiak ere.

### Zer nolako produktuak eskaintzen ditu Errigorak?

Nafarroa erdi eta hegoaldea du ardatz Errigorak. *Euskal Herriaren baratza* ere deitu ohi zaion eremu hori bera. Horregatik, lur horietan propio hazten diren lehengaietatik abiatutako produktuak eskaintzen ditugu, gehienak kontserbetan, bertan urte luzeko tradizioa duen ekoizpenforma.

Hala, kanpaina guztietan ondoko produktu hauek eskaintzen ditu Errigorak: oliba-olioa birjina estra, barazki-kontserbak, ardoak, arroza, pasta, lekaleak, fruitu-lehorrak... denetarik!

### Tartean zuek ere bai: zainzuriak eta orburuak.

Nola ez! Aipaturiko zonaldea zainzuri eta orbuz beteta baitago! Elikadurak ere garrantzizko tokia jokatzen du gure kulturaren, eta horregatik, Euskal Herriko hegoaldeko sukaldaritzan murgiltzeko modu ezin hobea da zainzuri eta orburuak gure eguneroko menuetan txertatzea. Goxo-goxoak eta ezin osasuntsuagoak!

### Produktuen eskaintzaz gain, euskarari sekulako ekarpena egiten dion eragilea da Errigora.

Errigora proiektua 2013an abiatu zen, Tuterako Argia Ikastolaren larritasun ekonomikoari erantzun nazional bat emateko helburuarekin. Hor egiten lehen aldiz

**"Ezinezkoa dirudien hori egi bihurtzeko dugun tresna da auzolana Errigorarentzat"**

Euskarari Puzka kanpaina eta 34.000 euro inguru bildu ziren Ikastolarentzat. Horretarako tresna bertako jakiak izan ziren, horiek Euskal Herri osoan banatuz bildu zen elkartasun ekonomikoa. Formula hark ederki funtzionatu zuela ikusita ekin zen urtero kanpaina errepikatzeari, eta ostera ekarpen ekonomikoa zonaldeko euskalgintzako hainbat eragileren artean banatzen da (AEK, Ikastolak, Sortzen eta Agerraldia). Hortaz, esan dezakegu euskararen ildo oinarritzakoa izan dela beti Errigoraren baitan.

### Auzolana da Errigoraren lan tresna nagusia: ehunka lagun borondatezko lana da eragilea mugiarazten duena. Hain zuzen, betiko lan kolektiboa balioan jartzea ere badu xede. Korrikak ere filosofia beretik egiten du aurrera bi urtean behin.

Auzolana ezinezkoa dirudien hori egi bihurtzeko dugun tresna da. Herriaren borondateari bultzada emateko oinarritzakoa bidea. Errigoraren filosofia hori gure praktika orotan txertatzen dugu, eta horri esker eratu dugu gaur egun daukagun sare erraldoia, herriz herri lanean ari diren ehunka auzolagilek osatzen dutena. Zentzu horretan, sintonia handia sentitzen dugu Korrikaren egiteko moduekin. AEK eta Errigoraren arteko elkarlana etengabea da egunerokotasunean.

### Aurtengo Korrikako protagonistak izango zarete zuok, Orburutxo eta Zainzuriñe. Zein modutan parte hartuko duzue 24. KORRIKA-n?

Errigorako ordezkariak izango gara aurtengo Korrikan. Ibilbide guztia furgonetekin batera egingo dugu, eta egunean behin korri egitera aterako gara, sorpresa izanen den kilometro batean.

Horri tiraka, joko bat luzatu diegu Korrikazale orori. KLIK KLAK bideo-kroniketan ikusi ahalko dute zein kilometrotan

otsailaren 26tik  
martxoaren 18ra  
errigora.eus

# ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

atera garen lasterka egitera, eta *errigora.eus* webgunean sartuz, zozketa batean parte hartu ahalko dute kilometroaren zenbakia asmatuta! Egunero sari bikainak zozkatatuko ditugu.

### Lasarteoriatarren artean ere ikusiko al zaituztegu?

Esan bezala, gure irteera momentua sorpresa izango da. Hortaz, baliteke Lasarte-Orian ateratzea.

### Zer lortu nahi zenukete aurtengo ekimenean parte hartzearekin?

Errigoraren misioa Euskal Herriaren luze zabalean hedatzea eta gure lagun sarea handitzea.

### Nola ekoizten dira zainzuriak, Zainzuriñe?

Denbora eta pazientzia handiko prozesua da, zainzuriak lantzeko lurra prestatzea bizpahiru urteko prozesua da. Lurra behin prest dagoelarik, aurreko urteetan landaturiko zurtoinen gainean lur gehiago bota (30-40 zentimetro) eta guztiz estaltzen da landarea, iluntasuna ezinbestekoa baita zainzuririk onenak hazteko! Udaberriari jasotzen da uzta, zurtoinenaren goialdea bildu eta zaina berriro lurperatuz.

### Nola kontsumi zaitzakegu?

Freskoan udaberriari bertan, eta kontserbei esker urte osoan zehar! **Zu ongi zuritzeak ere badu bere garrantzia, ezta?**

Kalitatezko zainzuriak izan ohi gara Nafarroakoak, mimo handiko ekoizpen prozesua bizi **dugunak**. Zuriketa ere esku onek egiten dutenez, Errigorako zainzuriok ez dugu halako problemarik bizitzen!

### Aizu... eta jaten zaitugunon txizari nola eragiten diozu usain propio hori?

Gorputzak gu jatean askatzen duen sufreaken errua da! Baina lasai egon, ez da kaltegarria. Zainzuria jateak, aldiz, baditu onura asko: urtsua dela, diuretikoa, antioxidatzailea, bitamina asko dituela, potasioa ere bai.

### Orburutxo, eta zu? Nolakoa da zu ekoizteko prozesua?

Orburuok landare handi batetik gator, jaten duzuen orburu bakoitzaren landare horren fruitu-ale bat da. Fruitua eman arteko prozesua, gure kasuan ere, hainbat urteko kontua da. Prozesua oso delikatua da.

### Zein baldintza behar dituzue hazteko?

Klima epela, eguzki pila bat eta ongi ongarritutako lurra.

### Zein da zuok kontsumitzeko garai ona?

Negu eta udaberri artekoa! **Badira oso gustuko zaituztenak edo erabat gorroto zaituztenak. Zergatik uste duzu gertatzen dela hori?**

Erriberan mundu guztiak gustuko gaitu! Euskal Herrian iparralderantz egiten dugunean gurekiko maitasuna gutxitu egiten da normalki, jendea ez omen dagoelako ohituta. Ez dut ulertzen. Nola ez zaigu ba euskaldunoi gure lurrean hain tipikoa den orburua gustatuko? Euskal gastronomiaren aldeko kultura gehiago behar dugu...

### Jaten dituenari haizeak sor diezazkiokezu. Zergatik gertatzen da hori?

Fermentatzeko joera handia daukagulako gertatzen da hori. Hala ere, gure defentsan, esan behar dut oso jaki aberatsak garelako: antioxidatzaileak, fibra pila batekin, potasioa, kolesterol txarra gutxitzen laguntzen dugu, baita diabetesa kontrolatzen ere...

### Zenbat zuritu behar zaitugu?

Kolorean dago gako! Kanpotik berde ilun kolorea dut, baina barnealdetik askoz argiagoa naiz. hiru edo lau kapa kentzearekin aski!

## Animazio eta edizio 'Bikainak'

Tipi-tapa baino, *tiki-taka, tiki-taka* ibili dira Bikain Diseinu Grafikoko lagunak hilabetez, ordenagailuetako teklatuak astindu eta astindu, Errigorako lagunak egindako enkargua prestatu eta Orburutxo zein Zainzuriñe pertsonaia "birsortzeko", euren estilo bereizgarri eta ezaguna erabilia (alboko elkarriketako irudia da horren adibidea).

Julian Toquero jabeak TXINTXARRI-ri kontatu dionez, Katxiporreta taldearen *Irria* aldizkaria irakurri ondotik jarri ziren Errigorakoak beraiekin harremanetan, agerkari horretarako egindako lana gustatu zitzaielako. Vanesa Lobatok sortutako Orburutxo eta Zainzuriñe protagonista dituen bideoa egiteaz arduratu dira. Bestela esanda, pertsonaia horiek birsortzeaz, nolabait: marrazteaz, animatzeaz eta ikus-entzunezkoa editatzeaz. Bi minutu eta 30 segundoko pieza audiobisuala ondu dute, erraz eta gustura ikusten dena, eta sortzaileei kanpotik dirudiena baino lan dezente gehiago eman diena: "Bikaineko hiru langile jardunaldi osoz aritu gara hilabetez proiektu horretan lanean, eta alor horietako ikasketak egiten ari den nire seme Oierrek ere asko lagundu digu animazioarekin eta edizioarekin".

Ikus-entzunezko horrez gain, Korrika egitasmoarekin zerikusia duten beste lan batzuk egin dituzte aurretik. 2016ko *Tipi-Tapa, Korrika!* diskoaz gogoratu da Toquero; 20. Korrika ekimenen harira argitaratu zuten lan hori Pirritx, Porrotx eta Marimotots sudurgorriek, AEK eta euskararen aldeko ekimen erraldoi hori bera omentzeko. Bi edizio geroago, 2022an, beraiek aintzatetsi zituen antolakuntzak.

Orburutxo eta Zainzuriñeren bideoa oraindik ikusi ez baduzue, azpiko QR kode hau sakelako telefonoarekin edo beste gailu digitalen batekin eskaneatuta izango duzue horretarako aukera:



## Auzolangile lasarteoriatarak

Errigorak baditu herriz herriko taldeak, horien artean baita Lasarte-Orian ere. Boluntarioki lanean aritzen diren herritarrek osatzen dute hori, eta aipatu eragileak aurrera eramaten dituen kanpainen laguntzen dute, besteak beste.

Lasarte-Orian Errigorako taldea 2014ko urrian jarri zen martxan, hau da, Errigoraren sorreratik urtebetera. Hori horrela, 11 urte pasatxoko ibilbidea egin du

dagoeneko. Lauzpabost laguneko taldetxo egonkor bat arduratzen da Errigoraren urteroko bi kanpainak dinamizatzeaz. Horiek aurrera ateratzeko, ordea, boluntario gehiagoren auzolana beharrezko izaten dute. Eskerak Lasarte-Oriara goizez iristen direnez, talde dinamizatzailekoak ez diren bost edo sei laguneko talde bat arduratzen da horiek deskargatzeaz eta produktuak Ttakunenea elkartean gordetzeaz. Bestetik,

banaketa egunetan laguntza puntuala eskaintzen duten hainbat lagun ere baditu taldeak.

Horretaz guztiaz gain, Errigorak udazkeneko produktuen kutxak egiteko Abilitasen egiten duen auzolan erraldoira ere 15-20 laguneko taldea urtero joaten da. Beraz, esandako hori guztia kontuan hartuta, Lasarte-Oriako 25-30 lagunek hartzen dugu parte urtero Errigoraren askotariko lanak aurrera ateratzen.

Amaitzeko, eskertu nahi izan dute Ttakunek eskaintzen dien



2014. urtean jarri zen martxan Lasarte-Oriako Errigora taldea. TXINTXARRI

"ezinbesteko laguntza"; eragile horrek uzten die kanpainen

banaketak egiteko Ttakunenea gunea.



... korrikarekin bat!



1987tik euskara eta euskal kultura sustatzen

Zirkuitu ibilbidea 2 · Lasarte-Oria (Gipuzkoa) · info@antza.eus · ☎ (0034) 943 370 738 · www.antza.eus





Bizilagun ugari bertaratu ziren udalak antolatutako elkarretaratzera. TXINTXARRI

## Aldarriak eta ekimenak aurrera eramaten ari dira Martxoaren 8aren harira

Emakumearen Nazioarteko Egunean bertan eta aurretik nahiz ondoren jarduera ugari burutzen ari dira erakundeak eta eragileak: mobilizazioak, literatura oinarri duten topaketak, bestelako emanaldi kulturalak edota kartel lehiaketa

### Txintxarri

Emakumearen Nazioarteko Eguna era askotan ikusarazten ari dira Lasarte-Oriako Udala nahiz aSUnak talde feminista eta ez data seinalatuenean (Martxoak 8) soilik, baita aurretik nahiz ondoren ere.

Hori horrela izanagatik, Martxoaren 8a bera izan zen mugituena, batek zein besteak egun horretan aurrera eraman zituelako egitarauetako jarduera gehienak. Eguerdiko hamabiak jo zutenerako dozenaka herri-tarrek bete zuten Okendo plaza, udalak deitutako elkarretaratzean parte hartzeko. Bi afixa erakutsi zituzten, partaideen eskuetan bat eta udaletxeko balkoian bestea. *Martxoak 8. Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Emakume batek aurrera egiten duenean, emakume guztiok egiten dugu aurrera* izan ziren

leloak, hurrenez hurren. Ekintza horretan komunikatu bat irakurri zuten "emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren eta errearen aldeko" konpromisoa berresteko. Ozen gaineratu zuten "berdintasunik gabe ez dagoela benetako demokraziarik, ezta benetako askatasunik ere indarkeria matxista desagerrarazi arte".

Ordu erdi geroago hasi zen Zero Sette Akordeoi Orkestrak antolatutako *Emakume klabeen* kontzertua. Mundu osoko musikagileen piezak interpretatu zituzten. Doinuekin batera, abestiaren autoreari buruzko informazioa jarri zuten Antonio Mercero aretoko pantailan, egileak ezagutu zituzten bertaratu ziren ikus-entzuleek.

Aurtengo egitaraua oraindik itxi ez badute ere, udal ordezkariak jakinarazi dute nortzuen

afixak iragarriko duten datorren urteko Martxoaren 8a. Nahia Saez de Maturana eta Lucia Gonzalez Infanteren sormen lanak irabazi du lehiaketa. Aurkeztutako "kalitate tekniko eta artistikoa, eta horien originaltasuna eta sormena" aintzat hartu dituzte irabazlea deliberratzeko.

Hilaren 10ean banatu zituzten kartel lehiaketako sariak eta egun berean elkartu ziren literatura txokoko kideak Ane Labaka Mayoz herritarrarekin, *Hezur berriak* lanaz mintzatzeko. Haurdunaldi betean eta umearen lehen hilabeteetan kokatutako 49 olerki jaso ditu aipatu lan horretan, eta bi atal nagusitan banatu du: *Aurrea* eta *Ondoa*, egilearen haurraren jaiotzak banatutakoak. Amatu aurretik eta ostean sentitu eta bizitako beldur, ilusio, erru, neke eta



Zero Setteko musikariek 'Emakume klabeen' kontzertua eman zuten. TXINTXARRI



Aurtengo hiru lan sarituak eta horien egileak eta udal ordezkariak. L-OKO UDALA



Ane Labaka irakurle txokoko kideekin solasean. L-OKO IRAKURLE TXOKOIA

presio sozialei hitzak jarri dizkie Labakak, eta hortaz guztiaz aritu da hil honetako saiora joandakoekin.

### Feminismotik, "beste mundu bat"

Martxoaren 8aren bueltan egun osoko egitaraua gauzatu zuen aSUnak talde feministak. Ia bazkalorduan hasi zuen jardunaldia, Jalgin, marianitadarekin eta DJ Turka-ren zuzeneko musika emanaldiarekin. Ederki pasa zuten dantzan eta poteatzen herrikideen artean. Jarraian,

bazkari autogestionatua egin zuten. Ostean, trikipoteoan aritu ziren manifestatzeko ordua iritsi zen arte.

Ekintza horren abiapuntua eta helmuga Okendo plaza izan zen. Pankartan, mezu argi hau: *Beste mundu bat feminismotik. Zapalkuntza sistemen aurrean: antolakuntza eta borroka*. Erdigunea zeharkatu eta gero idatzi bat partekatu zuten enparantza horretan, mobilizatu ziren ehunka pertsonekin. Feminismotik, "beste mundu bat" aldarrikatu



DJ Turkak girotu zuen eguerdia Jalgi kafe antzokian. TXINTXARRI



Feminismotik, beste mundu bat aldarrikatu zuten kaleetan. TXINTXARRI



Salsa-batxata saioarekin amaitu zuten Emakumearen Nazioarteko Eguna. TXINTXARRI

zuten: "Transfeminista, antifaxista, antikolonialista eta anti-klasista". Era berean, jakinarazi zuten ez direla "isilik" geratuko, eta arrazoiak "soberan" dituztela kalera irteko. Antolatutako programa ixteko salsa-batxata dantza saioa egin zuten Sagardotegi kalean.

#### Itsaspeko Bihotzak ekimena

Arestian esan bezala, udalak zenbait eragilerekin lankidetzan antolatutako jarduera sorta ez da amaitu oraindik. Guztiei bu-

ruzko xehetasunak aldizkari honetako 15. orrian dituzue, Agenda atalean.

Horien artean nabarmenena hilaren 16an egingo duten saioa da, Itsaspeko Bihotzak ekimenaren barruan. Euskal literaturako zenbait lan aztertu bitartean berdintasuna jorratuko dute 5 eta 8 urte arteko haurrek zein euren familiekin, euskaraz. 17:00etan izango da, Antonio Mercero aretoan. Izena eman nahi dutenek bihar arteko (hilak 14) epea dute.



Semblante Andaluz elkartearen egoitzan aurkeztu dute topaketaren egitaraua. TXINTXARRI

#### KULTURA

## Udalerriaren ondare kulturalari egiten dioten ekarpena ikusaraziko dute

Emakume Elkarteak II. Topaketa egingo dute apirilaren 25ean, egun osoz

#### Txintxarri

Lasarte-Oriaren kultura ondarearen zutabeetako bat dira elkarte gastronomikoak eta horietako bazkide diren emakumeek mugari nabarmena ezarri dute euren arteko topaketarekin. Bigarren edizioa apirilaren 25ean aurrera eramango dutela iragarri dute eta egitaraua aurkeztu dute antolatzaile lana hartu duen Semblante Andaluz eragilearen egoitzan. Eguna "zoragarria" igaroko dutela azpimarratuta, eragileetako bazkide guztiak animatu dituzte izena ematera.

Aniztasuna eta elkartasuna dira udalerriaren ezaugarrietako bi, ekimenaren aurkezpen ekitaldian adierazi dutenez. Horren muinean elkarte gastronomikoen lana dagoela adierazi dute, baita horietako bazkide diren emakumeena ere. Hori horrela izanik, Emakume Elkarteak II. Topaketa antolatu dute, euren guztien ezagutza trukatu eta parte hartzeaz gogoeta egitea ahalbidetuko dien jarduera "berritzaile eta desberdina". Apirilaren 25ean aurrera eramango dute, egun osoz.

Udal ordezkariak gonbidatu dituzte prentsaurrekora eta Gi-

zarte Zerbitzuak departamentuko zinegotzi Lourdes Acevedok hartu du hitza antolatu duten ekimenegatik eskerrak emateko. Adierazi du "iazkoa baino bereziagoa" izango dela aurtengo topaketa: "Urtarrilaren 18tik aurrera esan dezakegu herriko elkarte gastronomiko guztietan dagoela gutxienez emakume bazkide bat". Hori horrela izanik ere, onartu du lan "asko" dutela oraindik egiteke: "Zergatik ez, emakumeak eragile horietako ardura eta zuzendaritza postuetara heltzea sustatu behar dugu. Eremu horiek libreak, seguruak eta errespetuzkoak izan daitezten, zuten hitza kontuan izan eta nabarmendu behar dute".

Egitarauari buruzko xehetasunak ondoko taulan irakur ditzakezue. Bazkarirako menuak 30 euro balio dituela zehaztu dute antolatzaileek.

**Urtarrilaren 18tik, elkarte gastronomiko guztiek dute emakume bazkide bana, gutxienez**

## Egun "zoragarria" igarotzeko

#### Emakume Elkarteak II. Topaketako egitaraua Apirilak 25, larunbata

- **11:00etan**, Palomo Linares elkartearen, txupinazoa eta partaideei ongietorria.
- **11:15etik aurrera**, pintxo-potea (Palomo Linares, Arrieskalleta eta Xirimiri) eta kalejira, Arranopola txarangarekin.
- **14:00etan**, **Semblante Andaluz elkartearen**, Bea Egizabalekin gogoeta.
- **14:30etan**, **Semblante Andaluz elkartearen**, bazkaria.
- **17:00etan**, **Semblante Andaluz elkartearen**, bazkalostea: bingo musikatua eta "zenbait sorpresa".

# UDA KO

# TXOKOAK

## EUSKARAZ; aisian HEZI, Batu Eta Udan GOZATU!

#HERRIAN #TXOKOAK  
#BATERA #DENONTZAT  
#IKASI #HAZI  
#ELKARREKIN #ZAINZA

HILABETE OSOA: UZTAILAREN 1ETIK 3OERA  
1. HAMABOSTALDIA: 1ETIK 15ERA | 2. HAMABOSTALDIA: 16TIK 3OERA

	Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arreba	3 anai-arreba
HH3-HH4 Hilabete osoa	10:00-13:00	133 €	123 €	113 €
	09:00-13:00	177 €	167 €	157 €
HH5-LH6 Hilabete osoa	10:00-13:00	145 €	135 €	125 €
	09:00-13:00	193 €	183 €	173 €
HH3-HH4 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00	70€	65€	60€
	09:00-13:00	93€	88€	83€
HH5-LH6 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00	76€	71€	66€
	09:00-13:00	101€	96€	91€



**GOITXOKO**  
09:00etatik 10:00etara  
**JANGELA ZERBITZUA**  
> 15:15ak arte.

Hilabetea: 150€ Hamabostaldia: 85€

\*LEKUA geldituz gero  
egun solteak har daitezke

\*TTAKUNEKO BAZKIDEEK DESKONTUA IZANGO DUTE  
ORDAINTZEKO MODUA: KONTU KORRONTETIK EGINGO DA KOBRANTZA.



labur.eus/txokoak2026

**MARTXOAREN 16AN**  
**10:00ETATIK AURRERA**  
**IREKIKO DA IZEN EMATEA!**  
**MAIATZAREN 4RA ARTE**  
**(LEKU MUGATUAK)**

**INFORMAZIOA:**  
**943-37 14 48**  
**AISIA@TTAKUN.EUS**





# HH3-HH4

(2021 eta 2022 bitartean jaioak)

- PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK.
- IPUINETATIK ETA JOLASETIK ABIATUTA ASMAKUNTZA PLASTIKOA.
- GORPUTZ ADIERAZPENA ETA SOINUAREKIN JOLASEAN ARITUKO GARA.
- IRTEERAK, 15:00AK ARTE BAT ETA SORPRESA GEHIAGO!



# HH5-LH2

(2018 eta 2020 bitartean jaioak)

- JOSTAKIROLA SAIOAK.
- GORPUTZ ADIERAZPENAREN BIDEZ MUNDU BERRI BAT ERAIKIKO DUGU.
- TALDE JOLASAK ETA LAGUNEKIN BIZITZEKO EKIMEN SORTA.
- IRTEERAK ETA HAINBAT BISITA GIDATU.

# LH1 eta LH2

(AUKERAN 4 EGUN, GOIZUETARA)

- 1ETIK 10ERA UDAKO TXOKOETAN.
- 13TIK 16RA GOIZUETARA.
- UDAKO TXOKOETAN HILABETEA BUKATZEKO!

	Ordutegiak	Prezioa	Jangela
GOIZUETA + Hilabete osoa	10:00-13:00	238 €	+ 150 €
	09:00-13:00	282 €	
GOIZUETA + 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00	175 €	+ 85 €
	09:00-13:00	198 €	

\*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute

# LH3-LH6

(2014 eta 2017 bitartean jaioak)

- ABENTURA ETA KIROLA.
- NATUR EKINTZAK.
- UR EKINTZAK.
- TALDE JOLASAK ETA PROBAK.
- TAILERRAK, IRTEERAK ETA JARDUERA BEREZIAK.
- KONPAINIA ONEAN BIZITZEKO ABENTURAK!





Talde argazki honekin babestu dute lasarteoriatarrek hilaren 17ko greba orokorrerako deialdia. TXINTXARRI

## GIZARTEA

## Motiboak eta helburuak azalduta, lanuzte orokorra egitea izango da hurrengo urratsa

Hilaren 17rako ekimenak antolatu ditu Lasarte-Oriako greba batzordeak

## Txintxarri

Hilaren 17an lantokiak hustu eta kaleak bete baino lehen, *M17 greba orokorra*. Zergatik eta zertarako? solasaldia aurrera eramane du Borobilean Elkarteak.

Lanuzte orokorra egiteko aldarr nagusiak bi dira: 1.500 euroko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata ezartzea eta gai horri buruz Euskal Herrian erabakitzea, "Madrildik inposatutako lan harremanen markoa gaintitu, bizi baldintzak hobetu eta aberastasuna hobeto banatzeko", ELAko kide David Penaren hitzetan. Sindikatu horren *Soldaten erradiografia eta errentaren banaketaren azterketa* ikerketako datu bat eman du: "2008tik ekonomia % 22,5 hazi bada ere, soldatak % 2,9 baino ez dira igo". Beste zenbaki batzuk ekarri ditu LABeko ordezkari Olatz Arozenak: "Gutxienez 239.535 langilek kobratzen

dituzte 1.500 euro baino gutxiago; hirutik bi emakumeak dira, bitik bat migratzailea eta lautik bat 30 urtetik beherako gaztea".

Gaia begirada feministatik jorratu du Maialen Aranburuk. Etxean "modu ikusezinean eta ordaindu gabe nagusiki emakumeek egiten duten lana", aberastasunaren banaketa "injustuak" eragindako soldata eta pentsio arrakalak... azaldu ditu, baita horren aurrean "alternatibak" eraikitzearen eta "langile klasearen, emakumeen eta pertsona migratuen eskubideak eta interesak erdigunean jarriko dituen erantzun sendo bat" ematearen beharra nabarmendu ere.

Emakume eta pertsona migratuekin batera, gazteei ere bete-betean eragiten die aferak. Adin tarte horretako pertsonen perspektiba ekarri du hitzaldira Xuar Agirrek, hilaren 17an nahiz bes-

### Lasarte-Oria ere, grebara

- **06:15ean**, pikete informatiboak.
- **10:00etan**, kale bira.
- **11:30ean**, Donostiako manifestazioan parte hartzea, Anoetatik.
- **14:30ean**, bazkari prekariora.
- **19:00etan**, manifestazioa, Okendotik.

te mobilizazio batzuetan erakutsi(ko) duten indarra eta gogo nabarmentzeko. "Subjektu aktiboa bilakatu gara horrelako ekintzetan eta gauza asko ditugu esateko. Euskal Herriak burujabetza behar du arazoei aurre egiteko".

itunak eta "sektorearen egonkortasuna bermatuko du".

ELAk, berriz, ez du babestuko, "langileek eskatutako gutxienekoak betetzen ez dituelako". Eragile horretako ordezkarien esanetan, itunak ez du bermatzen soldatak parekatzea, ordainsarien igoerak mugatzen ditu eta ez du KPI Kontsumo Prezioen Indizeari buruzko erreferentziarik jasotzen. Gehitu du ratioak hobetzeak ez diela behargin guztiei eragingo eta "prekarietateari aurre egiteko funtsezkoak diren gu-

## Lanuztea, zergatik eta zertarako?



**OLATZ AROZENA**  
LAB SINDIKATUKO KIDEA

"Greba hau ibilbide baten ondorioa da. Batetik, Patronalarekin saiatu gara gutxieneko soldata negoziatzen eta uko egin dio. Bestetik, Eusko Jauriaritzak baztertu egin du gaia Legebiltzarrean eztabaidatzea, herritarren 140.000 sinadura aurkeztuta ere. Mespretxu larri eta antidemokratikoaren aurrean, tainainako erantzuna da".



**MAIALEN ARANBURU**  
BEGIRADA FEMINISTA

"Pobreziak eta prekarietateak emakume, migratu eta gazte aurpegia dute. Ez da kasualitatea soldata okerrenak prekarizatuenak diren sektore horietakoak izatea. Lan alor bat prekarizatu egiten da feminizatzen denean. Injustua da aberastasunaren banaketa emakume eta gizonen artean eta horrek soldata eta pentsio arrakalak eragiten ditu".



**DAVID PENA**  
ELA SINDIKATUKO KIDEA

"Greba orokor guztiak testuinguru zehatz baten bueltan egiten dira eta hau ez da salbuespena. Bereziki kezkarriak dira hiru ardatz hauek: militarismoa, gizartearen faxistazioa eta patronalaren ofentsiba ideologikoa. Hilaren 17koak mobilizazio kontzientea izan behar du: feminista, antiarrazista eta antifaxista".



**XUAR AGIRRE**  
GAZTEEN IKUSPUNTUA

"Ez da egia gazteei ez zaizkigula politika edota ekonomia interesatzen; hori gezurra dela errebindikatuko dugu hilaren 17an, Martxoaren 3an Gasteizen eta 8an toki askotan erakutsi dugun bezala. 1.500 euroko soldatak izatetik urrun gauden sektoreetako bat da gurea; lanaldi osoak eginda ere ezinezkoa zaigu gure bizitza proiektuak irudikatzea".

## GIZARTEA

## Aurreakordioa lortu dute eskoletako jangeletako langileek

## Txintxarri

Hilaren 10ean aurreneko lanuzte eguna egin eta gero bertan behera utzi zituzten 11erako eta 12rako deialdiak sare publikoko eskoletako jangeletako langileek, negoziazio mahaiaren aurreakordioa lortuta. Foro horretan gehiengoa (% 54) duen LAB sindikatuak iragarri du "lan, soldata eta gizarte arloko hobe-

kuntza garrantzitsuak" jasotzen dituela itun horrek. CCOO eta UGT ere batu dira akordiora. 37 ikasletik 30era jaitsiko da ratioa Lehen Hezkuntzan, 2027-2028 ikasturterako. Halaber, jangeletako langileen soldatak sukaldeetan aritzen direnekin parekatuko dituzte; bestela esanda, % 6,5 igoko dituzte ordainsariak. 2030era arte iraungo du



Behargin talde bat. GARAIKOETXEA-LANDABERRI

txieneko lanaldiak" ez dituztela ezarriko.

Horren berri izan ostean, Garaikoetxea-Landaberri eta Landaberri LH eraikinetan atzo (hilak 12) ekin zioten jangela zerbitzua "normaltasunez" emateari bertako langileek. Aurreko egunean, ikasle guztientzat nahikoa janari ez zutenez, 10ean bezala jokatzeko erabaki zuten eta Lehen Hezkuntza ikasten ari eta etxean bazkalduko zuten ikasleak Hipodromoko aparkalekuraino eramane zituzten, 12:15erako.

## GIZARTEA

## Hiru garbigune txiki jarri dituzte Zatarain auzoan eta Adarra zein Asteasuain kaleetan

Udal hondakin tasak berrikusten ari dira udal korporazioko alderdi politikoak

## Txintxarri

Hiru garbigune txiki berri jarri ditu udalak Zatarain auzoan (Olatxoaldea eta Artzailurra kaleen lotunean, zehazki) eta Adarra nahiz Asteasuain kaleetan. Ohiko edukiontzietan bota behar ez diren etxeko hondakinak (tresna elektronikoa txikiak, pilak, bonbillak, CDak, aerosolak...) utzi ahalko dituzte horietan. Agustin Valdivia alkateak eta Zerbitzuak sailko zinegotzi David Mateosek azaldu dute beste urrats bat egin dutela azken urteotan garatzen ari diren "zaborraren bilketa sistema hobetzeko prozesuan".

Norabide horretan, Mateosek 2025eko zenbait datu aipatu ditu: "Eskura ditugun azken datuen arabera gaikako bilketa ia % 9 igo da, % 44,86tik % 53,30era; horrek erakusten du udalerriko birziklatze sistemak bilakaera positiboa izan duela urte horretan". Halaber, hondakin organikoaren bilketak "% 57 egin du gora" eta modu horretara jasotako 827 tona zabor bildu dute. Horrekin batera, errefusa % 18,13 jaitsi da eta herrian sortutako hondakin kopuru osoak % 4,81 egin du behera. Datu bildumarekin bukatzeko zehaztu du lasarteoriatar bakoitzak 327 kilo hondakin sortzen dituela urteko, "Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko batez bestekoak baino gutxiago".



Agustin Valdivia eta David Mateos, Zataraingo garbigune txikiaren alboan. TXINTXARRI

San Marko Mankomunitatearen barruan hondakin gutxien sortzen duen udalerrietako bat izanagatik, Mateosek adierazi du badagoela "hobetzeko tartea", batez ere, "frakzio organikoan". Hori horrela, "sentsibilizazio kanpaina berriak egiten eta bilketa sistema hobetzen" jarraituko dutela azpimarratu du.

## Hondakin tasak berrikusten

Agustin Valdivia alkateak esan du udalerririk baduela jada "hondakinak behar bezala bereiztea errazten duen azpiegitura sarea". Horren barruan sartu ditu garbigune txikiak eta edukiontzi uharte berriak. "Gainera, laster, edukiera handiagoko kontainerrak jarriko ditugu, herritarrentzat are

errazagoa izan dadin birziklatzea".

Horrekin batera, gogorarazi du udal korporazioan ordezkari dute alderdiak lanean ari direla hondakinekin lotura duten tasak berrikusteko, "zabor gutxien sortzen dutenek diru gutxiago ordainduko duten eredurantz aurrera egiteko". Aurtengo urte osoa hartuko dute horretarako eta, ondo bidean, datorren urteko zergak moldatzea jarri dute helburutzat.

Amaitzeko, garbigune txiki berriak erabiltzera eta hondakinak birziklatzera animatu dituzte herritarrak. "Datuek erakusten dute bizilagunak ari direla erantzuten eta hala jarraitzea espero dugu".

## KOMUNITATEKO EDUKIA

## Euskararen erabilera eraikiko dute



EAGI IKASTETXEA

Azkenaldian han eta hemen asko zabaldu da gazteek euskara gutxi erabiltzen dutenaren ustea eta aldatzeko beharra. Kezka hori gogoan eta 24. Korrika aitzakiatzat hartuta EAGI eraikuntza eskolan 15 baitz ekimena abiatu dute, ikasleek artean euskararen ahozko erabilera bultzatzeko. Horretarako Ebete eta Ttakun Kultur Elkarteko ordezkari Iker Artetxeren laguntza izan dute. Eskolako ikasle euskaldunek ahobizi edo belarriprest rola aukeratu dituzte eta jarduerak iraungo duen hamabostaldian honek dakartzan konpromisoak betetzeko ahalegina egingo dute.

## GIZARTEA

## Bigarren eskuko azoka egingo dute Zabaleta auzoan, hilaren 28an

Liburu, disko, arropa, jostailu, altzari eta antzekoak berrera-biltzea sustatzeko helburuarekin bigarren eskuko azoka aurrera eramango dute Zabaletako auzotarrek hilaren 28an, aurreneko aldiz. "Etxean erabiltzen ez ditugunei bitzta berria eman nahi diegu", adierazi dute auzo elkarteko ordezkariak.

Esan bezala, ekimen hori hilabeteko azken larunbatean egingo dute, 10:00etatik 14:00etara. Parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute 644 31 07 10 telefono zenbakian, hilaren 24a baino lehen. "Ani-



Azoka iragartzeko kartela. BASOKO MAXUTXA

matu parte hartzera! Guztion artean bigarren eskuko azoka eder eta erakargarria sortuko dugu auzolanean", gehitu dute.

## KULTURA

## Lasarte-Oria "zikintzen" jarraitzen dute, musikarekin

Herriko gazte talde batek Gure Lasarte zikina musika jaialdia-aren hirugarren edizioa egin zuen Xirimiri elkartearen, hilaren 7an. El Volquete, El Exterminio de la Raza del Mono eta Baserriko Ollaxkue Labien taldeek "zikindu" zuten udalerria. Laugarren aldian prestatzen hasi dira jada; aurrerago emango dituzte xehe-tasun guztiak.



Xirimiri jo zuen taldeetako bat. TXINTXARRI

## "Autokonplazentzia" kritikatu dute

Udalak garbigune txikiak jarri dituela iragartzeko agerraldia egin eta gutxira bertan esandakoak baloratu ditu Eguzki Talde Ekologistak. "Etxeko hondakinez egin duen kudeaketari dagokionez behintzat, udal gobernuaren autokonplazentziak ez du mugarik", adierazi dute eragile horretako kideek. "Europako araudiak ezartzen dituen estandarretatik oso hurbil dagoela esan arren, errealitatea

da Hondakin Legea urratu duela Lasarte-Oriak; 2025ean, gutxienez, zaborraren % 55 gaika bildu behar zuela ezartzen du araudi horrek".

Horri lotuta, nabarmendu du Gipuzkoako 88 udalerrietatik hamarrek urratzen dutela legea eta Lasarte-Oria dela horietako bat. "Eta zergatik dago Lasarte-Oria Gipuzkoan gutxien biltzen dutenen artean? Udalak alor honetan beti ahal den gutxienean eta ahal den beranduen egin

duelako". Eguzkiko kideen aburuz, gainera, egin duena ez du beti ongi gauzatu: "Organikoaren edukiontziak, itxita zeudenak, zabaldu egin zituzten; errefusako edukiontzi gehien-gehienak ere, itxita beharko luketenak, irekita daude".

Amaitzeko, esan dute "suspenso galanta" atera duela udal gobernuak hondakin kudeaketan. "Osasungarria iruditzen arren, ez dugu autokritika publikorik eskatuko, baina bai behar bezalako neurriak behingoz hartzea. Autokonplazentziak horretan lagundu ez arren".

## ERRUGBIA

## Gipuzkoa Sortzen proiektuko ordezkariak, etxean garaipena eta Valentzian porrota

Ongi borrokatu arren, emaitza ezberdinak izan dituzte beltzen taldeek

## Txintxarri

Gipuzkoa Sortzen proiektuko ordezkarietatik bik bakarrik izan zuten jardunaldia hilaren 7an eta 8an. Horietatik, Beltzak RTko kidez betetako Euskal Ligako I. Mailako taldeak Atsotabar kirol gunean izan zuten lehia Menditarrak-en aurka; 25-20 irabazi zuten.

Lehia estua izan zen zelaian metroak irabazteko eta bi taldeek ongi baliatu zituzten sortutako aukerak, lehen zatiko amaierara 8-10eko markagailuarekin iristeko.

Errenta txikia izanik, etxekoak indartsu atera ziren bigarren zatian eta bi entsegu eta gauzatzeri esker aldea ireki zuten (22-10). Baztandarrek ez zuten amore emango, ordea, eta zigor ostiko eta entsegu eta gauzatze bati esker markagailuan gerturatu ziren (22-20). Baina etxekoak adi ibili ziren eta denbora amaitzear zela zigor ostiko bat lortu eta 25 eta 20koarekin itxi zuten partida.

## Valentzian, kale

Bestalde, Ohorezko B Mailako taldeak Valentziara bidaiatu zuten. Igoera jokatzeko bidean, hiribuko CAU Valencia izan zuten aurkari.



Beltzak, erasoan. TXINTXARRI

Lehen jardunaldian Sevillaren aurka galdu ostean, fase berrian garaipena eskuratzeko gogoz atera ziren beltzak eta bi zigor ostiko eta entsegu bati esker errenta txikiarekin iritsi ziren atsedenaldira, 6-11.

Etxekoek ez zuten neurketak ihes egitea nahi eta ederki borrokatu zuten bigarren zatian partidari itzulia emateko; azken emaitza 23-16 izan zen.

Beltzak RTko harrobiko jokalarari Joanes Arroyo deialdian izan zen eta bigarren zatian atera zen zelaira.



LUIS CABELO

## Brontzearen bila, Madrilera

Europako txapelketako finalerdia jokatu zuen Espainiako selekzioak Lisboan (Portugal). Portugal izan zuen aurrez aurre eta otsoak izan ziren nagusi, 23-7. Entsegu eta gauzatze bakarra egin ahal izan zuten gorri-horiek bigarren zatian. Entsegua Saleta herritarrek egin zuten. Hilaren 15ean, Madril lehiatuko dira finalak eta Espainiak eta Errumaniak brontzea izango dute jokoan.



Donostia Arraun Lagunak, Oriako jaitsierako banderarekin. ORIOGUKA

## ARRAUNA

## Donostia Arraun Lagunak-ek Oriako jaitsierako bandera eskuratu du

## Txintxarri

Oriaren traineru jaitsierak 78 ontzi bildu zituen hilaren 7an Orion. Kategoria ezberdinetako lehiaz gozatu ahal izan zuten arraunaren zaletuek eta emakumezkoan herritarrek kide dituzten Donostia Arraun Lagunak eta Donostiara ere bertan izan ziren lehian. Lehenek aurreneboraldian indartsu daudela erakutsi zuten Ori ibaiiko uretan eta bandera Luñañene baserrira eramane zuten.

Erlojupeko proba modura, minuturo ontzi bat atera zen Saikola eta Orio artean dauden 4.000 metroak egitera. Donostia Arraun Lagunak azken-aurreko postuan atera zen lehiara eta

denbora onena egin zuen (14.25,96) Hondarribia hamazazpi segundogatik gaituz. Mirotzen zain geratu zen Donostiako taldea, baina etxekoek ezin izan zuten euren marka ondu, 14 segundora geratu ziren. Proba horretan ez zen Lasarte-Oriako ordezkariarik izan eskifaian.

Donostiara, aldiz, multzoko zazpigarren atera zen eta momentu horretan lehen postuan zen Hondarribiaren marka izan zuten jomuga. Baina Enara Arruti herritarra tostan izan zuten taldeak ezin izan zuten *Ama Guadalupeko*-ren denbora hobetu eta hoge segundora geratu zen *Bantxa*. Azken sailkapenean zortzigarren izan ziren.

## JUDO

## LOKEko judoek, lau domina Gipuzkoako txapelketan



LOKE JUDO

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko (LOKE) judoek eskolarteko mailako Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zuten hilaren 8an, Urnietan. Zazpi judoka izan ziren borrokan tatamian eta lau domina jantzi zituzten: Martina Miguelezek zilarra, Alba Padronesek zilarra, Ainitze Tabuzzi-k brontzea eta Ivan

Barrantesek brontzea. Horiez gain, Unai Granado, Juren Matailo eta Daniel Nikitinenek ere parte hartu zuten jardunaldian.

Domina lortu duten kideek, gainera, hilaren 28an Oiartzunen lehiatuko den Euskadiko Eskolarteko Jokoetarako sailkapena eskuratu dute.

## TXIRRINDULARITZA

## Martin, hirugarren Beasainen



MA MARTIN

Lasarte-Oriako txirrindulariek errepideko denboraldiko bigarren lasterketari egin zioten aurre hilaren 7an, Beasaingo 44. Usurbe proba. Andoaingo txirrindulari eskolako Xabat Martin podiumeko hirugarren maila igo zen. Lasterketan zehar, talde nagusian mantentzea lortu zuen Lasarte-Oriako txirrindulari gazteak eta Beasainera iritsi baino lehen eraso jo zuen. Azken zuzengunean taldeak harrapatu eta esprintean hirugarren izan zen Martin. Unai Guisado herritarra 01.33ra iritsi zen eta Dario Gomezek eroriko batengatik proba utzi behar izan zuen.

## ARETO FUTBOLA

## Eguzki AFko gazteek ederki borrokatu dute Cadizen, Euskadiko selekzioarekin

## Txintxarri

14 eta 16 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa lehiatu zuten Cadizen (Andaluzia) hilaren 6tik 8ra. Bi kategorietako selekzioek ederki borrokatu zuten. Eguzki Areto Futbol taldeko kideak hasierako bosetokoa izan dira zelaian, Julen Mauleonek kapitain modura jokatu zuen eta gaztetxoan mailan, Julen Murillok eta zaharrenean Hugo Hernandezek gola egin zuten Errioxa eta Extremaduraren aurka, hurrenez hurren.

14 urtez azpiko taldeak Nafarroa eta Errioxaren aurka neurtu zituen indarrak. Errioxarekin bina berdindu ostean, penaltietan eskuratu zuen garaipena Euskadik. Nafarroaren aurka, aldiz, 3-1 galdu zuen. 16 urtez azpikoek ez zuten zortetik izan Kanariar Uharteak eta Extremaduraren aurka; bi neurketak galdu zituzten; lehena 2-4 eta bigarrena 2-1.

## Nagusi, etxean

Bestalde, ligako jardunaldiari aurre egin zioten aurre Eguzki-kideek, Ohorezko Erregional mailako taldeak izan ezik, gainerakoek garaipena erdietsi zuten. Harrobia indartsu dagoe-la erakutsi zuten, gainera, gazteen mailako zein infantil mailako ordezkariak nagusi izan ziren euren partidetan. Ikus koadroa.

- Ohorezko Erregional Maila : Eguzki Arkupe Rehab. 0 - 5 Gaintxu
- Erregional I. maila: Eguzki ISU Leihoak 5 - 3 Urnieta
- Gazteen maila: Eguzki Lekuona t. 17 - 1 Laskorain B
- Infantil maila:
  - Eguzki Patri. T. 17 - 0 Aloña M. B
  - Aloña M. A 0 - 9 Eguzki And. T.



14 eta 16 urtez azpiko selekzioko kideak eta zaleak. EFF\_VVF

## GIMNASTIKA ERRITMIKOA

## LOKEko gimnastek lan ederra egin dute Eskolarteko txapelketako bigarren saioan



Eskolarteko bigarren saioan parte hartu zuten taldeak. LOKE GIMNASTIKA

## Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek Eskolarteko txapelketako bigarren jardunaldia lehiatu zuten hilaren 7an eta 8an, Azpeitian.

Alebin mailako taldeak esku hutsik eta pilotarekin egin zuten lan eta infantil mailako kideek, aldiz, uztaiekin.

Tapizean lan ederra egin zuten bai talde baita bakarkakoek ere. Ikus emaitzak ondoko taulan.

Gipuzkoako txapelketarako parte hartzaileak zehazteko ere balio izan zuen saioak eta gauzak horrela, infantil mailako A eta C taldeek zein bakarkakoek lortu zuten maiatzean jokatuko den finalerako sailkapena.

### Eskolarteko txapelketa bigarren saioa eta sailkapen orokorra

## Taldeak

- Infantil A - LOKE - 5°/6°
- Infantil B - LOKE - 16°/16°
- Infantil C - LOKE - 7°/6°
- Alebin C
  - Landaberri E1 - 15°/14°
  - Landaberri E2 - 18°/15°
  - Landaberri M1 - 27°/25°
  - Landaberri M2 - 33°/35°

## Bakarka

- Infantil A
  - Laia Suberbiola - 2°/2°
  - Aiala Jimenez - 3°/3°

\* Bigarren jardunaldiko emaitza/ Sailkapen orokorra

\* Beltzez, finalera sailkatu diren talde eta bakarkakoak

## DUATLOIA

## Lasarte-Oriako duatloi zaleek lasterketa denboraldia hasi dute

## Txintxarri

Amorebieta-Etxano, Mungia, Garai, Añorga... duatloi denboraldia hasi da eta Lasarte-Oriako kirolariak ere martxan dira. Zehazki, Amorebieta-Etxano (Bizkaia) eta Añorgako hitzorduetan izan ziren herritarrak lehiatu eta bakarka zein taldean lehen postuetan izan ziren.

Motorrak berotzen hasteko, otsailaren 14an jokatu zen Bizkaiko proban, taldekako erlojupeko Euskadiko txapelketa zegoen jokoan. Zumeatarra taldeko Ibai eta Urko Izagirre eta Aimar Sukuntza herritarrak Ganix Ormazabalekin batera lehiatu ziren eta zortzigarren sailkatu ziren.

Hilaren 8an, aldiz, Añorgako lasterketan sprint modalitate probari egin zioten aurre Sukuntzak, Ibai Izagirrek (01.12.38) eta euren taldekide Nora Landabereak federatu mailan; Open kategorian, Iñigo Otaegi (01.19.56) eta aurten berrikuntza izan zen errelebo proba egitera animatu



Zumeatarra taldea, Añorgan. ITURRIZA

zen Beñat Del Olmo herritarra (01.23.32) ere.

5 kilometro korrika egin ostean, bizikletan 9 kilometroko ibilbidea bitan egin eta 2,5 kilometroko lasterketa egin zuten parte hartzaileek.

Sukuntzak (01.04.58) 23 urtez azpiko bigarren postua eskuratu zuen eta taldeko Zumeatarra ekipoak lehen postua eskuratu gizonen mailan; Landaberea (01.29.44) eta taldekideak, aldiz, hirugarren izan ziren emakumezkoan.

## KIROL EGOKITUA

## Inklusioa eta adiskidetasuna ospatuz



UPSALA MENDI ELKARTEA

Upsala Mendi Elkarteko kideek taldearen urteurrena ospatzeko jardunaldi ederra izan zuten.

Eguraldia lagun izan bazen ere, aurreko eguneko euriaren ondorioz, segurtasuna bermatzeko ibilbidea moldatu eta laburtu zuten. Elkartearen balioak (kirola, elkarbizitza eta inklusio soziala) kontuan izanik, ekimena pertsona guztiei irekia izan zen eta ikusmen desgaitasuna zuten lagun talde bat ere izan zen bidea egitera. Indarrak berreskuratzeko bazkaria izan zuten Abend jatetxean, eta Rafafa Magoaren trukoez ere gozatu zuten.

Elkarteko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete urte honetan zehar euren babesa eman duten elkarte, erakunde eta komertzioei.

## ZORION AGURRAK



## Eñaut

Udaberriko zena bihurtu da negu, orduztik lau urtetxo pasatu zaizkigu. Zorionak Eñaut etxekoan partez, glutundun bizkotxoaz egongo gera prest.



## Nikole

Zazpigarren udaberria zain duzu, Nikole! Segi orain arte bezain alai, jakinzale eta pertxenta. Ederra da bizitza zure ondoan. Muxuak Joanes, aitaxo eta amatxoren partez.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## Iragarkia jartzeko

943-37 14 48  
 publizitatea@ttakun.eus  
 www.txintxarri.eus/  
 sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 13	DE MIGUEL
LARUNBATA, 14	GIL
IGANDEA, 15	GIL
ASTELEHENA, 16	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 17	LASA
ASTEAZKENA, 18	GIL
OSTEGUNA, 19	DE MIGUEL

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
 KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia

Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

## La Esperanza auzo elkarteak urteko batzar orokorra egingo du hilaren 15ean

Basaundi bailarako haur parkearen estalpean elkartuko dira. Aurreneko deialdia 10:30ean egingo dute, eta bigarrena, ordu erdi geroago.

La Esperanza auzo elkarteak kideek egin dute urteko batzar orokorrerako deialdia eta gai hauek landuko dituzte: aurreko bilkurako akta irakurri eta onartzea; jardunaldiaren kudeaketaren balantzea; zuzendaritza batzorde berria izendatzea; eta galdera eta erreguak. Erabile horretako bazkide guztiak gonbidatu dituzte bilkurara.



Hurrengo TXINTXARRI paperean martxoaren 27an argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu albisteak:  
 www.txintxarri.eus

## TXINTXARRI eskelak: zabalkunde handiena Lasarte-Orian

ESKELAK JARTZEKO:  
 943 37 14 48 edo 646 82 44 66  
 publizitatea@ttakun.eus  
 Osteguna 16:00ak arte jasotzen ditugu.

PREZIOAK:  
 Eskela mota bat TXINTXARRI Paperean + txintxarri.eus-en:  
 125 € (+ 21% BEZ).

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4 (behea)  
 20160 Lasarte-Oria  
 G-20407557

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre Etxeberria,  
 Iñigo Gonzalez Sarobe,  
 Maddi Noriega Zaldúa eta  
 Lierni Apaolaza  
 Urdanpilleta.

Publizitatea  
 Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Lierni  
 Rekondo, Gorka Alvarez,  
 Aizpea Amas, Maitane  
 Rebe, Jexux Artebe eta  
 Oihane Puertas.

## Banatzaileak

Nora Navarro, Aimar  
 Hernandez, Gari Iraola,  
 Axier Iraola, Eneko Sanchez  
 eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak  
 IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
 WhatsApp: 646 82 44 66  
 publizitatea@ttakun.eus

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943-37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
 txintxarri@ttakun.eus

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
 Lege Gordailua:  
 SS-513/93  
 ISSN: 1134-0053  
 Tirada: 8.300 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
 UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.  
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 13

## LASARTE-ORIA

- **Ekitaldia** 24. Korrikaren aurkezpen eguna egingo dute, ekimen hauekin:
- **18:00etan**, Okendotik abiatuta, Ttiriki Tarraka eskolako lagunekin kalejira.
- **18:30ean**, kultur etxean, 24. Korrikaren aurkezpen gala.
- **20:00etan**, kultur etxe kanpoaldean, Dinbi Banda batukada taldearen emanaldia.
- **21:00etan**, Oriarte Landaberriko patioan, Oihan Vega DJaren emanaldia.
- **Literatura** Olga Serrano idazle lasarteoriatarrek *Tragaluz* liburua aurkeztuko du. Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:30ean.
- **Lehiaketa** LOGA Lasarte-Oriako Gazte

Asanbladako kideek mus txapelketa egingo dute. Izena emateagatik 10 euro (langabeek) edo 15 euro (langileek) ordaindu beharko dituzte parte hartu nahi dutenek. Aurreneko eta bigarrenengo sailkatuei sariak emango dizkiete. Xirimiri elkarte, 20:00etan.

## LARUNBATA 14

## LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat pentsaturako asteroko ipuin kontaketa saioa. Gurasoeekin batera parte hartuko dute txikiak. Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 11:00etan.
- **Tailerria** *Kamishibai* eskulan tailerra antolatu dute, haurrentzat. Parte hartu nahi dutenek aurrez izena

eman beharko dute. Udal Liburutegia, 11:00etan.

- **Ikuskizuna** Korrika Kulturala ekimenaren barruan *AA Aita* bakarriketa egingo du Jon Plazaolak. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:00etan.

## IGANDEA 15

## LASARTE-ORIA

- **Zinema** *Baba Yaga eta sorginkeraren liburua* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** *Tres adioses* filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

## ASTELEHENA 16

## LASARTE-ORIA

- **Martxoak 8** Itsaspeko Bihotzak egitasmoa saioan parte hartu ahaliko dute 5 eta 8 urte arteko haurrek eta euren familiarek, euskal

literatura landu bitartean berdintasuna jorrazteko. Ekimena doakoa da baina parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman behar dute 14a baino lehen. Udal Liburutegia, 17:00etan.

## ASTEAZKENA 18

## LASARTE-ORIA

- **Emanaldi digitala** *La Gioconda* opera klasikoaren emanaldi digitala antolatu dute Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Herritarrek saioa bertaratzera animatu dituzte antolatzaileek, "kalitatezkoa eta ikusgarria" izango dela nabarmenduta. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute. Kultur etxea, 19:00etan.

## OSTIRALA 20

## LASARTE-ORIA

- **Martxoak 8** Okendo Zinema Taldearekin lankidetzan *La chica zurda* filma emango du

udalak. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.

## LARUNBATA 21

## LASARTE-ORIA

- **Antzerkia** *Semafora* haur antzerkiaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

## IGANDEA 22

## LASARTE-ORIA

- **Zinema** *Como cabras* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** *El agente secreto* filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

## ASTEARTEA 24

## LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** Martuteneko Harrera Taldearen eredia

ezagutzeko saioa antolatu du Lasarte-Oriako Bizipoza eragileak. Oriarte Landaberri, 17:00etan.

- **Tailerria** Komikiak egiten irakatsiko die Ainara Azpiazu *Apxi* ilustratzaileak parte hartzaileei. Udal Liburutegia, 18:00etan.
- **Mahai ingurua** Korrika Kulturala ekimenaren barruan *Euskaratik sorkuntza* solasaldia antolatu dute. Ttakunenea, 19:00etan.

## ASTEAZKENA 25

## LASARTE-ORIA

- **Euskara** 24. Korrikak herria zeharkatuko du eta egitarau hau antolatu dute:
- **10:30ean**, Korrika Txikia, herriko ikasleekin.
- **12:54an**, 24. Korrika iritsiko da, Errekaldetik.
- **17:00etan**, emanaldia egingo dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek, Okendon.
- **18:30ean**, LOZET eta Oaintxe in deul txarangakoek kalejira egingo dute herrian barrena.

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

## FUTBOLA

## LARUNBATA 14

- OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**
- **Ostadar SKT - Lagun Onak** 15.30. Michelin kirol gunean.
- GORENGO MAILA**
- **Behobia CD - Ostadar SKT** 15.30. Artia, Irunen.
- ERREGIONAL I. MAILA, KOPA**
- **Ostadar SKT - Ast. Mundarro B** 17.30. Atsobakar kirol gunean.
- JUBENILEN GORENGO MAILA**
- **Ostadar SKT - Mundaiz SCD** 13.15. Atsobakar kirol gunean.
  - **Aretxabaleta B - Texas Lasart. CF** 17.30. Ibarra, Aretxabaletan.
- JUBENILEN I. MAILA, KOPA**
- **Euskalduna A. - Ostadar SKT** 15.30. Ubitarte, Andoainen.
- OHOREZKO K. MAILA, JAITSIERA**
- **Ostadar SKT - Lengokoak KE C** 09:45. Michelin kirol gunean.
- IGANDEA 15**
- ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA**
- **Texas Lasart. CF - Trintxerpe** 10.30. Michelin kirol gunean.
- OHOREZKO J. MAILA, IGOERA**
- **Ostadar SKT - Beasain SD B** 11.30. Atsobakar kirol gunean.
- JUBENILEN I. MAILA, UD. KOPA**
- **Oiarzun KE D - Texas Lasart. CF** 09.00. Karla Lekuona, Oiarzunen.

## ARETO-FUTBOLA

## OSTIRALA 13

- ERREGIONAL I. MAILA**
- **Ataun KE - Eguzki ISU Lehoak** 21.30. Auzoeta kirol., Ataunen.
- GAZTEEN MAILA**
- **Eguzki Lekuona T. - Anoeta FT** 20:50. Maialen Chourraut kirol.
- LARUNBATA 14**
- OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**
- **Benetazko - Eguzki Arkupe Rehab.** 15.15. Pio Baroja kirol.
- KADETE MAILA**
- **Eguzki Escalerilla T. - Lauburu** 11.30. Maialen Chourraut kirol.
- SASKIBALOA**
- OSTIRALA 13**
- J. ERRENDIMENDUA, A-1**
- **Ostadar SKT - Bera Bera (atzeratua)** 19.00. Maialen Chourraut kirol.
- LARUNBATA 14**
- SENIOR II. MAILA, A-3**
- **Ostadar SKT - Aloña Mendi** 16.00. Maialen Chourraut kirol.
- SENIOR III. MAILA, A-3**
- **Ast. Mundarro - Ostadar SKT** 15:30. Astigaragako kirol.
- K. PARTAIDETZA, A-1**
- **Ostadar SKT - Hondarribia Ik.** 14.00. Maialen Chourraut kirol.
- K. PARTAIDETZA, A-5**
- **Ostadar Urdina - Arri BKL** 09.30. Maialen Chourraut kirol.

- **Bera Bera - Ostadar Beltza** 18.00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
- IGANDEA 15**
- J. ERRENDIMENDUA, A-1**
- **Ostadar SKT - Goierri UZ** 11.30. Maialen Chourraut kirol.
- OSTEGUNA 19**
- EUSKAL LIGA, K. MAILA, A-2**
- **Askatuak - Ostadar SKT** 11.00. Altza kirol., Donostian.

## BOLEIBOLA

- LARUNBATA 14**
- EUSKAL LIGA, I. MAILA**
- **CV Sestao - Ostadar SKT** 19.00. Sestao, Bizkaian.
- EUSKAL LIGA, II. MAILA**
- **Ostadar SKT - Navarvoley** 18.00. Maialen Chourraut kirol.
- K. PARTAIDETZA**
- **Ipar Titanak - Ostadar SKT** 09.00. Bidebieta kirol., Donostian.
- IGANDEA 15**
- JUBENIL MAILA**
- **Ostadar SKT - Suger Trebeak 2** 09.30. Maialen Chourraut kirol.
- K. ERRENDIMENDUA**
- **Bera Bera - Ostadar SKT** 09.45. Manteo kirol., Donostian.

## ATLETISMOA

- LARUNBATA 14/IGANDEA 15**
- ESPAINIAKO TXAPEKETA**
- **Ostadar SKTko Eider Redondo** 18 urtez azpiko Espainiako

txapelketako 60 metro hesi lasterketan lehiatuko da. Antequera, Andaluzian.

## PILOTA

## OSTIRALA 13

- ESKUZ, BINAKA, K. EMAKUME**
- **Intza KE - Mundarro** 19.00. 1. partida. Idiazabalen.

## LARUNBATA 14

- G. PALA, BANAKA, N. 2. MAILA**
- **EPLA - Intza KE (Artetxe)** 09.45. 1. partida. Erreterian.

## IGANDEA 15

- ESKUZ, BINAKA, N. 2. MAILA**
- **Intza KE - Hernani 1** 10.30. 2. partida. Michelin pil.
- ESKUZ, BINAKA, K. 1. MAILA**
- **Intza KE - Tolosa 1** 10.30. 1. partida. Michelin pil.

## ERRUGBIA

- LARUNBATA 14**
- EUSKAL LIGA II. MAILA**
- **La Unica RT - Gipuzkoa Sortzen** 16.00. UPNA, Iruñean.
- 16 URTEZ AZPIKOA, 2. MAILA**
- **Zarautz Beltzak Eibar - Iruña** 12.30. Unbe, Eibarren.

## IGANDEA 15

- EUROPAKO TXAPEKETA**
- **Espainia - Errumania** 16.00. Leganes, Madrilen.
- 18 URTEZ AZPIKOA, 1. MAILA**
- **Gernika - Zarautz Beltzak Eibar** 11.30. Gernika, Bizkaian.

## GIMNASTIKA ERRITMIKOA

## LARUNBATA 14

- GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
- **LOKEko gimnastek Amateur** mailako txapelketako bigarren jardunaldian egingo dute dantza. Egun osoa. Uzturpe kirol., Tolosan.

## JUDO

## LARUNBATA 14

- ESKOLARTEKO TXAPELKETA**
- **LOKEko alebin mailako kideek** Eskolarteko txapelketako lehen fasea lehiatuko dute. Arratsalde. Urnietan.

## IGANDEA 15

- GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
- **LOKEko kadeteek** Gipuzkoako txapelketa izango dute jokoan. Goiza. Urnietan.

## DUATLOIA

## LARUNBATA 14

- ANDOAINGO DUATLOIA**
- **Herriko kirolariek Andoaingo II. Duatloian** parte hartuko dute. 16.00. Andoainen.

## XAKEA

## LARUNBATA 14

- G. LIGA, I. MAILA, IGOERA**
- **Gros H - Taula A** 16.00. Donostian.
- G. LIGA, II. MAILA, JAITSIERA**
- **Billabona - Taula B** 16.00. Billabonan.



# LUIS CAR

## autobusak

**KORRIKA-rekin bat!**

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • [luiscarbus62@hotmail.com](mailto:luiscarbus62@hotmail.com)

# ORIANTE BHI

**BATXILERGOKO matrikulazio epea**  
**MARTXOAREN 16tik 27ra**

- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Orientazio akademikoa
- Hezkidetzak
- Agenda 2030
- Ekintza osagarriak
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- Hezkuntzako eramangarriak doan

ZIENTZIAK ETA  
TEKNOLOGIA

GIZA ETA  
GIZARTE  
ZIENTZIAK



**ORIANTE**  
Institutua



## ATE IREKIAK

**MARTXOAK 16, 17:30-18:30**

**LARREKOETXE eraikinean!**

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa) 

Buenos Aires aldapa 1, Lasarte-Oria

943 899 492 

[info@oriarte.eus](mailto:info@oriarte.eus) 

<https://oriarte.hezkuntza.net/> 